

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea xehetasunezko azterlanari

Udalbatzak, 2016ko abuztuaren 12ko osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen Samaniegon (Arabako Errioxa) "Bodegas Benjamín de la Rothschild & Vega-Sicilia S. A." izeneko upategia ezartzeari buruzko xehetasunezko azterlana, eta, honen bidez, argitara ematen da Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua onorioetarako (7/1985 Legea, apirilaren 2koa).

Kontsideratuz ezen Alkatearen 2016ko ekainaren 15eko 16/2016 zenbakiko ebazpenaren bidez hasierako onarpena eman zitzaiola "Bodegas Benjamín de Rothschild & Vega-Sicilia, S. A." sozietateak sustatutako xehetasunezko azterlanaren proiektuari, Samaniegon (Arabako Errioxa) "Bodegas Benjamín de la Rothschild & Vega-Sicilia S. A." upategia ezartzeko, eta xehetasunezko azterlan horrek egokitu egiten dituela upategi horri buruzko Plan Berezian ezarritako xedapenak.

Kontsideratuz ezen jendaurrean jarrita egon dela hogeiei egunez, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 2016ko ekainaren 22ko alean (71. zenbakia) iragarkia argitaratuta eta Diario de Noticias de Álava egunkariaren 2016ko ekainaren 23ko alean iragarkia argitaratuta, eta jakinarazpen pertsonala egin zitzaizela xehetasunezko azterlanaren lurralde eremuan proiektuak zuzenean erasaten dien jabeek eta gainerako interesdunei.

Kontsideratuz ezen jendaurrean jarrita egon den epean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Kontsideratuz ezen Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2c) artikulua (7/85 Legea) udalbatzari esleitzen diola hirigintza legedian ezarritako antolamendu plan eta gainerako tresnen udal izapideei amaiera ematen dien onarpena emateko eskudantzia.

Ikusirik eta azterturik idazkaritzaren 2016ko abuztuaren 10eko txostena, Udalbatzak, zinegotzietako 4k aldeko botoa emanik eta PSOeko zinegotzia absteniturik, honako hau erabaki du:

1º. Behin betiko onarpena ematea "Bodegas Benjamín de Rothschild & Vega-Sicilia, S. A." sozietateak sustatutako xehetasunezko azterlanaren proiektuari, zeinaren xedea baita Samaniegon (Arabako Errioxa) "Bodegas Benjamín de Rothschild & Vega-Sicilia, SA" upategia ezartzea eta zeinak egokitu egiten baititu Samaniegoko "Benjamín de Rothschild & Vega-Sicilia" upategiaren plan berezian ezarritako xedapenak (Samaniego, Arabako Errioxa).

2º. Behin betiko onarpenaren erabakia ALHAOn argitaratzea, eta xehetasunezko azterlanaren agiria udal webgunean, <http://ayuntamientosamaniego.com/>

3º. Erabaki hau jakinaraztea jabeek eta xehetasunezko azterlanak zuzenean eragiten dituen gainerako interesdunei. Halaber, hirigintza arloan eskumena duen foru organoari jakinaraziko zaio.

4º. Alkateari ahalmena ematea erabaki honetarako behar den agiri oro sina dezan.

5º. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Samaniego, 2016ko abuztuaren 19a

Alkate lehendakaria

CRISTÓBAL ZUÑEDA BERGANZO